

LETRA gaixoak



Letren lurraldean,
beti ari dira lanean,
guk irakurri, pentsatu
eta amets egin dezagun.

Ipuinekin jolas egiten dut:
asmatzen ditut mila istorio,
abentura eta bestelako,
gero amari kontatzeko.



Baina, egun batean,
gaixotu egin zen **E** letra.
“Ez zaitez kezkatu”,
esan zion **A** letrak.
“Nik hartuko dut zure lekua
osatzen zaren arte”.

Batzuek, irakurtzean,
aurpegi arraroak jarri arren,
E letra ez egon arren,
ia denak funtzionatzen zuen.

Alabaina, hurrengo egunean,
okertu egin zen egoera:
gaixotu egin zen **M** letra,
eta **O** berarekin batera.

A zer nolako nahaspila
hemen sortu dena!
Ez dago ulertzerik
hemen jartzen duena!

Horrela jarraitzerik
ez zegoenez gero,
bilera egin zuten letrak,
egoera konpontzeko.



Letrak aztertzen ibili zen
sendagile jakintsua,
eta hauxe agindu zien:
garbitzeko segituan!

Zikinaren zikinaz,
itsusituta zeuden letrak,
eta ia ematen zuen
mamuak zirela.

Puntua ematen zuen **O** letrak,
hain zegoen arraro;
M letra, berriz,
bihurtua zen marrazo.

W letra gutxi erabiltzen denez
gure alfabetoan,
garbitasunaz bera arduratuko zela
esan zuen orduan.

Horrela eutsi zioten letrek
osasun onari.
Ez zen gehiago sortu
esaldi ulergaitzik.

Irakaspena:

Zaindu zeure burua,
zaindu zeure osasuna,
inguruan dituzunentzat baitzara
paregabeko laguna.

